

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Berorren maiestate Sofia Erregina Tuterako Almirantearen Etxea ikustera joan da

Kultura-gunea kudeatzen duen fundazioko kideekin elkartu da eta José María Yturralde margolariaren erakusketa ikusi du

Lunes, 28 de marzo de 2011

Berorren maiestate Sofia Erregina Tuterako Almirantearen Etxean izan da. Jauregia iaz zabaldu zuten bi urtez zaharberritzeko obrak egiten ibili ondoren. Han kultura-gune hori kudeatzen duen Fundación María Forcada fundazioko kideekin elkartu da eta José María Yturralde Valentziako margolariaren erakusketa ikusi du.



Berorren maiestate Sofia Erregina Almirantearen Etxera egin duen bisitaren oroipen plaka desestaltzen

Sofía Erreginarekin batera ekitaldian izan da Miguel Sanz Sesma Nafarroako Lehendakaria. Parlamentuko presidentea, Elena Torres, Etxebizitzaren Estatuko idazkaria, Beatriz Corredor, Nafarroako Gobernuko ordezkaria, Elma Sáiz Delgado, Tuterako alkatea, Luis Casado Oliver eta jauregiaren jabea eta hori dohaintzan eman duena, María Forcada ere han izan dira.

Tuterara iristean, Elvira España ikastetxe publikoko Francisco Javier Marín Montoya haurrak lore sorta eman dio berorren maiestateari.

Horren ondoren, segizioa eraikinerara sartu da eta han Sofía Erreginak bisitaren oroipen plaka desestali du. Hauxe dio testuak gaztelaniaz: "Berorren maiestate Sofia Erregina Fundación María Forcada fundazioaren egoitza den Almirantearen Etxea ikustera etorri zen. Tuteran, 2011ko martxoaren 28a".



Sofía Erregina Yturralde margolariaren azalpenak entzuten

Gero, agintariak bigarren solairuan dagoen areto noblera joan dira eta han fundazioko kideek erakundearen proiektuen eta helburuen inguruko azalpena eman dute, baita Belén Esparza arkitektoak egin duen jauregiaren zaharberritzeari buruz ere.

Lehenengo soliruan, Sofía Erreginak agintariek lagunduta eta José María Yturralde margolariaren azalpenak entzunez haren "El tiempo ausente" erakusketa ikusi du. Margolaria valentziarra da baina nafarren ondorengoa da.

Almirantearen Etxea jauregia

Almirantearen Etxea jauregiak bost solairu ditu eta horietan aldi baterako erakusketa gelak, Fundación María Forcada fundazioaren egoitza, konferentzia aretoak, ikastegiak eta administrarien bulegoak daude, besteak beste. 1520-1560 urteen artean egindako eraikina da, Pizkude garaiko moldea du eta Rúa de Tudela kalean dago, udaletxearen ondoan eta herriko alde zaharreko kale nagusian.

Dokumentuen bidez ez da gauza handirik jakin eraikinaren eraikuntzaren inguruan, eta "Almirantearen Etxea" izena jartzeko arrazoi logikorik ere ez da aurkitu. Eraikinaren jabetzari dagokionez, agirien bidez jakin da eraikinak izan duen jardunbidea, baina hiriko agirietan ez da aurkitu eraikuntzaren eta eraikina egitean parte hartu zuten obra maisuen eta artisauen inguruko daturik. Ezagutzen den lehenengo jabea Cabanillas Berrozpe familia izan zen, Gómez Peralta familiaren ondorengoa. Azken familia horrek etxea eraikitzea agindu zuen 1520 eta 1560 urte artean. Cabanillas Berrozpe familiaren ondoren Castillo Cabanillas eta Gómez de Peralta familia izan zen jabea XVII. mendean, Ximénez de Cascante eta Ximénez de Antillón familia XVIII. mendean eta Dorreko Baroia XIX. mendean.


Duela hogeita hamar urte baino gehiagotik María Forcada izan zen etxearen jabea eta eraikina sendotu eta zaharberritu egin zuen. Gaur egun, azken jabeak egindako dohaintzari esker, Almirantearen Etxea Tuterera herriarena da.

Fundación Maria Forcada fundazioa

Fundación María Forcada zuzenbide pribatuko fundazioa da, ez du irabazi asmorik eta interes orokorra du. Nortasun juridikoa du eta jarduteko ahalmen osoa. Fundazioaren izena María Forcadaren omenez jarri zen, Tuterera herriari Rúa kaleko 13ko Almirantearen Etxea izeneko egoitza eman ziolako.

Eraikinaren funtsezko helburua kultura- eta heziketa jaruerak burutzea da, bereziki unibertsitateko prestakuntzaren osagarri izatea Estatuko edo atzerriko edozein unibertsitatearekin elkarlanean jardunez. Hala, gizartea oro har eta, batez ere, Tuterako gizartea garatzen lagunduko du. Horrez gain, fundazioak jakintza orokorraren eta mota guztietako hizkuntza artistikoak hedatzea indartu eta sustatzen du bereziki, eta administrazio publikoekin eta bestelako instituzio zein erakunde publiko eta pribatuekin elkarlanean aritzen da kultura hedatzen laguntzen duten programak eta proiektuak garatzeko, bereziki, jarduera artistikoak.


Galería de fotos



Forcada fundazioko kideekin



Fundazioaren omenez liburua



Fundazioaren partzuergoa

sinatzen



Sanz Lehendakaria berorren maiestatea agurtzen



Almirantearen Etxearen aurrean



Fco Javier Montoya, Sofía Erreginarekin